

## Jean HIRIART-URRUTY

1927-1990

Hazparne herriko izarretarik bat hau ere : distiratsu bezain ixila, izarrak ixilak diren bezala. 1927an sortua, otsailaren 11an. Garai hartako hazpandar seme dohatuen gehienak bezala erraiteko maneran, apez-eskoletan egin zituen abiadurak, bai eta hunek, bururatu ere : Erroman, teologo-soziologo lizentziaturak ardietsiz. Horien segida Baionako diosesa edo eliz-barrutian izan zuen, laster teologia erakasle, gero Hazparneko misionest eta predikari, baina, laster, Afrika ere behar zuen jastatu, Seminario Haundiko apezgaien moldatzailegoa ere utzirik, ainitz sailatarat ere arrakastatsu baita orotako on dena. Horra nola dugun 49 urtetan Elizbarrutiko Bikario Nausi Baionan.

Euskararen sailean, etxetik haste, Hazparnen berean, Hazketa Abituenekeo mintzaira xotilari joanen zionik ez izanik nehon, hor ginuen bai Jean Hiriart-Urruty idazlea, lehenagoko Hiriart-Urruty Joanosederraenekoaren hari bereko iloba ttipia, *Gure Herria, Gazte, Etxea, Herria* aldizkarietan irakurriko dena, batean idazle eta maiz zuzendari ere.

1976an Euskaltzain dugu hazpandarra, Louis Dassance Uztaritzekoaren segidan "Euskara odolean" zuelarik Lafitte jaunak zion bezala. Gainerat hor ditugu *Herriako* Piarres Lafitte beraren hitzak, diolarik Hazketarraren lehen liburuko bilduman, nolakoa duen « *mintzaira xehe, bizi eta errexa, garbikeriak eta arradokeriak higuin dituela... herriz-herri entzun hizkuntza derabilala doi-doia apaindurik, irakurlea argitu nahiz, eta ez baitezpada hitz arrotzez harritu beharrez* ».

Segitzen ere du Lafittek bere hitzaurrean, erakutsiz Eliza ere hunkitzen duenetan, oraiko kanbiamenduak hor dauzkala aipagarri, ezin ukatuz mende huntako kanbiamenduak : « *Ainitz giristino haztoratuak, durduzatuak* », baitira kontzilioaren hautu berriak ezin edo nekez konprenituz daudenak, kexu ere orobat zenbait. Horien aitzinean huna zer izan den Jean Hiriart-Urruty apezaren lana : hogeit bat urtez *Herria* astekarian idatzi du 1969tik eta 1990 artean, bere asteko artikulua, arras gutitan huts eginez. Lehen bi urteetan, tokian zen Jean Hiriart-Urruty bera izanez kasetaren zuzendari. Gero aldiz, bera joan zelarik Afrika Burundirat, hango seminarioko erakasle (Bujumbura), beti segitu izan du hasi saila epe labur baten buruan. Hortaz erranen du Lafittek berak, nolakoa izan zen gure apez idazlea : « *Beti zentzuz eta goxoki,*

*gauzak haxean ezarriz, zauriak goxatuz eta erakutsiz, nehoi oldartu gabe* » ari zitzaiela gorago aipatu ditugun giristino kezkatueri gure mendeko egun inarrosietan.

Artikulu argigarri horiek orok gure apezaren heriotzearekin ukanen dute, egunez egun, beren bururapena. Maiatzaren 7koa da azken artikulua 1990 hartan eta, hain zuzen, bere betiko gazteari zen mintzo Euskaldun Gazteriaren arduradun izanik bera luzaz eta hau zuen bere azken artikulua Bernat Etcheperaren hitzak hartuz « *Jalgi hadi plazara* » eta bere azken bi lerroak zituen « *Mugi, ez lotsa ! Elgarretaratzeak emaiten dik indar* ». Azkenaren azkena berriz, bulego gainean zuen zendu delarik, ondoko astekoa... paper xuri xuria...

Horiek oro dira, hogeituro artikulua sei liburutan bildurik daudenak, *Jauna dut argi* (I eta II), *Fedea gidari*, *Artzain solas*, *Izar alde*, *Aitaren etxerat*, azken hau Jean eta André bi anaien lanttoz osaturik, beraz familia bereko gai eta jakizkoak hauk ere.

#### Bera mintzo :

« *Ezagutua da lehenagoko jaun ertoraren eta herriko xantrearena : ez ote zuen lehenak igande batez bazkariz gomitatu xantrea etxeko arnoarekin hastean, hau arinttoa, eta Bordelekoarekin ondarrean ! Bainan bigarrenarentzat ele guti gure gizonak, aldiz lehena goretsia zuelarik gain-gainetik.* » Eta beste huntaz, ez duzu deus erraiteko ? erretorak. Aldiz besteak : « *Hau bera mintzo da Jauna !* » Hori bera erranen du, segurki, liburu hau irakurriko dituenak ere... bat aurkitzen ahal badu bederen orain hogeituro urte bezalatsu agertu ziren lan horietaz.

Hain zuzen, gure gaia hola dugun huntan, nahiago eta hobe ginuzke berak mintza dituen utzi gure adiskide zenaren obrak. Bat bederen hautatu dugu egungotz, ahoko gustuarentzat, asteroko artikulu horietan. Latza izan zen gaia, egia erran, 1980ko udaberri hartan, noiz-eta gure bi gazte xintxikatu baitzituen Baionako ospitale aitzinean, abertzale urrats ilunetan norbaiten beribilaren pean apailatzen ari zuten bonbak. Berak dio apirilaren 4eko artikulu huntan Jean Hiriart-Urruty apezak nola behar izan zuen gazte horietaz mintzatu. Ez du denen gustua eginen bere hitzetan, orotako moralista batzuek, elizako edo ez, botizkeriaren kondenamendu hotza nahi-ta, bi aldeetako errespetua eta helduen erantzukizuna ere hor dela erakutsiz gure gazteriaren arduradunak, dela gazte, buraso eta herria bera hain maite zituen apezak. Baina orotan, betiko neurria eta bihotza. Huna aste hartako gogoetak :

## **Gure horiek**

3-IV-1980

*Aste huntako ene hitzñoa, Bazkoko besta ederraz egiteko xedea nuen. Bainan huna nun, joan den asteazken aratsaldean, Baionako ospitalean zartatu den bombak Euskal-Herri guzia inarrosi duen, lano beltz batez bezala bazterrak estaltzen zituela.*

*Gertakari horren ondotik, ixilik egoitea litake enetzat errexena. Hoberena ere ba, erranen dautate zonbaitek. Eta bizkitartean, iduritzen zait mintzatu behar dutala, labur bada labur.*

*Bainan nori mintza ? Orok dakiten moldean hil diren bi gazteak gogoan, heien laguneri nahi niokete erran : « Gu bezalako ainitzek, atsegin handi dugu ikusten ditugularik gazte batzu, beren herriari errotik atxikiak, beren indar guziak egiten herria bizi dadin, eta bizi bere baitan dauzkan ontasun guziekin. Hortan, osoki zuekin gaude. Bainan ainitz bagira, zuek hartu duzuen gogorkeriaren bidea onar ez dezakegunak. Euskal-Herriak bortizkeria ainitz jasaiten duela, egia duzue ; bainan bortizkeria horieri armekin ihardokitzea, bazterrak fundituz, jendeen artean beldurra sar-araziz, bai eta zonbaiten bizia irriskutan ezarriz, ez zaiku iduritzen molde ona dela. Bestalde, arma guzietan itsuena, ez ote da bomba zuk manatu ez diozun lana eginen baitautzu berdin, behar ez den tokian eta tenorean, zorigaitzez askotan gertatu den bezala ».*

*Holako zerbait nahi niokete erran, bihotz barne-barnetik, aipatu ditudan gazteri. Bainan ez naute entzunen, eta arras ontsa konprenitzen ditut : berriegia dute zauria ; heientzat, ene solasen onartzea, galdu dituzten bi lagunen ukatzea litake.*

*Itzuliko naiz beraz ene adinekoeri buruz. Egun hauetan, aditu ditut Euskaldun xahar batzu, euskal-politikatik arras bazter daudenak. Segur naiz, beste nunbait, hemendik urrun, gertatu izan balitz Baionan gertatu dena, erranen zutela : « Gaixtaginak ! ». Bainan bi mutikoak nor ziren jakin orduko, kexu eta hasarrearen orde, pena eta bihozmina zaiote sortu ziotela : « Gaixoak ! ».*

*Asteazkeneko gau latz hartan, eta ondokoetan ere, hogoi urteko seme edo alaba bat duten aita-ama asko egon dira xifrituak : « Gure hura ez ageri. Nun ote dago ? Zer ari da ? Norekin dabila ». Batek baino gehiagok gogoan erabili duke : « Gure etxean ere, guk uste gabea, beste batzuetan gertatu dena gertatzen ahal.*

*Nundik has gitazke gu, gazte horien jujatzen ? Gureak ditugu, etxeakoak ditugu. Aita edo ama batek bere haurra kondena ote dezake ? Gaztek derabiltzaten urratsekin ez bagira akort, bereri erranen diotegu, ahal badugu,*

*ahal bezain suharki, gure ikusteko moldea ; eta gero, askotan ixilik sofritzea ukanen dugu.*

*Bestalde, behar ginuke ere naski guhauk egin dugunari edo ez dugunari behatu : guk, adinetakoek nolako mundua preparatu diotegu gazteri ? Guk Euskaldunek, zer egin dugu Euskal-Herria bizi eta azkar begiratzeko ? Gure haur zombaiten errabia, ez ote du gure ezazolkeriak sort-arazi ?*

*Eta gero, halako edo hulako bidea makurra edo lanjerosa dela erraitea, errex da. Guhauk zer bide erakusten eta hartzen dugu, gure herriaren alde, bereziki sail batean edo bestean kargu zerbait dugunek ?*

*Familietan, badira heriotze batzu, etxekoen batasuna finkatzen dutenak, aintzinean samurtuak zirenen artean ere ; badira beste batzu, haurrideen arteko berexgo eta herrak sekulan baino saminkiago agertzen dituztenak. Bi herritar gazteren galtzeak batetara balitza, herria doi bat maite dutenak bederen !*

*Aste Sainduak otoitz egitera deitzen ditu girixtinoak. Nola ez sar-araz gure otoitz-xedetan gure bi haurride gazteak, heien etxekoak, Euskal-Herriko gazteria guzia ? Bazkori buruz, girixtinoek behar dute, Jesusen ondotik, bizi berri bati lotu. Badugu nun berma.*

*Gure herria iluntzen duten lano beltz guzien artetik, Bazko bestak pitz dezala bazterretan argi eta esperantza !*

Denak ezin erran epe laburrez, alta balaitekeelarik luzatzekoa, ala eguneroko euskara horren distiraz, eta erran-molde alai eta omoretsuez, aski laitezke artikuluen tituluak berak ikertzea, berek emaiten diguten irakur-gosearekin. Huna, lehen liburuan berean dauzkagun batzu : Axalaz axola, Saindu gorriak, ametsetako eliza, Hiltzalea hil ? Aita-amen katixima, Lurra apalegi zerua goregi, kameluaren konkorra, Elizan galtzadunak eta oso-oso herritar gostuz apailatuak aurkitzen ditugun jan-edariak. Ez, ez ditugu egundaino krabata-ttatarretan ezagutu Abitueneke hazketarrak, eta hala-halakoak agertzen zaizkigu beren egintzetan ere guk egungo gaia dugun "Jeanot" huntarik haste, izen horrendako ere ez baitzuen egundaino bururik berotu euskal giroko familia hortako nehork.

Eta etxekoak berak hoin ixil daudenaz geroz, uste dut berek hertsatzen gaituztela, nahi ala ez, gu edo beste norbait, horien erakustera denaden. Lehenik harrobi batetara bezala ikusi ditugu gure herrietako ainitz apez, erretor edo bikari, gure apez adiskide hunen ganat jotzen. Nork ez daki heldu zen igandeko ebanjelioaren hitza hartzen zuela maiz bere artikuluen koplaturuko, zerbait estakuruz edo agerian ! Errextasunez, eta herriaren probetxutan, beren emankizuna

iturri hortan aberastua, Jean Hiriart-Urrutyren artikulua hartzen zuten, zenbaitek hitzez hitz, beren igandeko predikuarentzat.

Erranen didate bestalde nork edo nork, eta galdea eginen, zer zuen ikustekorik apez euskaldun batek Euskaltzaindiarekin horien guzien artetik. Lehenik, orok dakitena da apezek herriarekin eta euskararekin beti izan duten lekua. Eta Euskaltzaindiarekin nondik ez, haste hastetik eta gero. Haatik mundua aldatu da 90 urtez, hortan ere, eta Jean Hiriart-Urruty lagunak hori jakin du, nehork jakitekotz. Nola ez da Euskal Herri huntan goratu, aberastu eta hobetu gure herriko gizon eta emazte argituen kopurua ? Eta horren ikusteko, aitzinean ginuen Jean Hiriart-Urruty. Ez dugu hemen gutartekoen salatzerik baina erran behar da nehork baino hobeki ikusi duela, bere denborakotz Jean Hiriart-Urruty batek, utzi behar geniola guk apezek jakintsun erakasle, idazle eta beste gizon emazteeri lehen apezek neurri on batean izan duten lekua, xehetasun gehiago hemen ez emaitako. Horiek nola, eta huntan bururatuz ene solasa, Jean Hiriart-Urrutyk zintzoki bete du bere euskaldun lekua Baionako elizaren buruan, Pierre Molères apezpikuaren laguntzan. Bere bigarren honen laguntzaz, berak euskara ikasi ondoan Lazkaon eta beste, eta eguneroko eskukaldiak bestalde, hastetik eta beti errespetatu du landestar gotzaiak euskara eta euskal kultura, bai-eta, nihaur naiz lekuko, Donibane Garaziko katekista multxo frantsestu baten aitzinean ere, erranez hitzez hitz, eta han nintzan, berriz ere diot : « *Zuek, hemen, Garazin, Euskal-Herriko bihotz moldatzaileak, zor diozue zuen herriari, zuen kulturak katekistek jabetzea, eta bietan, zuen haurren geroa delakotz zuen eskutan* ». Badakit lan zailari lotu zela hor gure Garazin ere zenbaitekin, baina ez zen lotsatu, han edo hemen berak (ez Garazin haatik) zerbait entzun izana gatik ere.

Ez da beraz harritzeko, hemengo hitz hauekin bururatu baitzuen, euskaraz Molères jaun apezpikuak Jean Hiriart-Urruty bere bikari nausiari ehorts-egunean Baionako Eliza Nausian egin zion predikua :

### **Euskaldun gizon eta apez**

Bai, beti ximple eta barna ari zen.

Haren adixkide bati herenegun galdatu diotalarik, zein ziren gehienik erabiltzen zituen gaiak, erran daut : denak hunkitu ditu, girixtino bertute guziak. Eliza berri. Eliza gaurko munduarentzat.

Hori zuten bai jendek pentsatzen ! Zenbaitek erran dukete neurriari sobera atxikia zela. Zuhurtziaz eta neurritz bete zen. Gizonaren adimenduari eta girixtino zentzuari mintzo. Herria erespetatuz.

Herria zuen maite, populuarekin zen goxatzen, Jesusen Eliza zuen maite.

Haren idatzia etzen ozpintsu, ez eta eztitsu, bainan gure patarretako arno arin eta goxoa zariola.

Euskaltzaindiak hori ikusia zuen, eta bere kideko hartuz, eskualde huntako idazle hoberenatarik bat saristatua.

Eztabada gogorrenetan, kenka txar nahasienetan, beti zentzuz ari zen. Euskal kulturaren, euskararen, eta kultura horren ebanjelioz argitzearen alde. Bainan zuzen den bezala, etzituen nahasten bere apez lana eta politika saila, zoziologian eta teologian jakintzun zenak.

Etzuen nahi Elizaz balia zitezen, Elizarenak ez diren helburuetako : Jainko-Semearen Ebanjelioa zuen zabaldu nahi. Beste frangok baino lehen, ikusten zuen zertarat daramaten ekintza eta solasek. Maizenik arrakasta guti duen dohaina, mende hunek nahiago baititu eztabadak eta izar faltsu batuen dirdirak.

Etzen haren baitan gehiegikeriarik. Maite zuen gauzen xeheki esplikatzea, maite elgarrizketatzea zuzenaren eta bakearen fagoretan.

Zinez gizona zen.

Hazparnen, 2009ko ekainaren 26an  
Emile LARRE, euskaltzaina